

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2024ko apirilaren 9ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 185/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Baimena ematea Kontseiluaren irailaren 23ko 564/2021 Erabakiaren bidez emandako dirulaguntzari gastuak egozteko.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 186/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak eta haren erakunde autonomoek egingo dituzten obra, hornidura eta zerbitzu kontratueterako administrazio klausula berezien agirien erduei.

Foru Gobernu Kontseiluaren 187/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren apirilaren 8ko 222/2022 Foru Aginduaren eta uztailaren 18ko 435/2022 Foru Aginduaren bidez eta Kontseiluaren martxoaren 29ko 186/2022 Erabakiaren bidez adjudikatutako aseguru polizen zenbait kontraturen likidazioari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 188/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea M_T00/2024/000000027 kreditu transferentziaren espedienteari, 4.395,80 euroko zenbatekoaz, "Egoitza Arreta eta Genero Indarkeriaren Biktimen Esku Hartzea" partida funtsez hornitzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 189/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea M_T00/2024/000000029 kreditu transferentziaren espedienteari, 80.000,00 euroko zenbatekoaz, "Makinak eta instalazioak konpontzea" partida funtsez hornitzeko, Gazteriaren Foru Erakundeak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 190/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea aurrekontu aldaketako zenbait espedienteri, hainbat partida funtsez hornitzeko, zerbitzuen ohiko funtzionamendua eta beren eskumenen erabilera egokia bermatze aldera, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak eta Gizarte Politiken Sailak hala eskatuta.

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 191/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Kontseiluaren abenduaren 14ko 739/2021 Erabakiaren bidez Bastidako Udalari emandako zenbatekoaren zati bat itzultzeko espedientea hasteari.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 192/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Aldatzea Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Kontseiluaren abenduaren 28ko 872/2022 Erabakiaren bidez onetsia.

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 193/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onestea 2016-2017, 2018-2019 eta 2020-2021 aldietarako Obra eta Zerbitzuen Foru Planari atxikitako zenbait obra amaitzeko epea luzatzea.

JASANGARRITASUN, NEKAZARITZA ETA NATURA INGURUNEAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 194/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea nekazaritzako ur baliabideak kudeatzeko laguntza lerroaren 2024ko deialdiari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 195/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan fruta arbolak ezartzeko laguntza lerroen 2024rako deialdiari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 196/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Kontseiluaren urriaren 31ko 700/2023 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa ezesteari (Esp.: VVIEJO-2023/00110).

Foru Gobernu Kontseiluaren 197/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 31ko 700/2023 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa baiesteari (Esp.: VVIEJO-2022/00146).

Foru Gobernu Kontseiluaren 198/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarea zaintzeko eta mantentzeko lanak egiteko Kontseiluaren ekainaren 7ko 343/2022 Erabakiaren bidez adjudikatutako kontratua luzatzeari.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 199/2024 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Arabako kirol federazioentzako laguntza lerroen 2024ko deialdiari.